

# Lurraren Zientzien Irakaskuntza Bigarren Hezkuntzan

## 1. Oinarrizko datuak

- **Irakasgaia:** Lurraren Zientzien Irakaskuntza Bigarren Hezkuntzan
- **Modulua:** Natur Zientziak eta Matematika: *ME II*
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Olatz Pereda Iriondo

## 2. Irakasgaiaren laburpena

Irakasgai honen bidez, ikasleek Euskal Herriko errealitateari helduko diote, izaki bizidunen eta biodibertsitatearen sailkapen eta deskribapenetik, paisaia eta ekosistema desberdinenera. Ikasleek dituzten aurrezagutzetatik abiatuta, kontzeptuak ikuspuntu didaktikotik landuko dira. Hortaz, kontzeptuak ikasgelara hurbiltzen irakatsiko zaie, horretarako proposamen egoki eta berritzaileak ezagutzuz eta aplikatuz.

## 3. Gaitasunak

### Oinarrizko konpetentziak

**CB6.** Ideiak garatu eta/edo aplikatzean originalak izateko oinarria edo aukera ematen duten ezagutzak edukitzea eta ulertzea, askotan ikerketa-testuinguru batean.

**CB7.** Ikasleek beren ikasketa-arloarekin lotutako testuinguru zabalagoetan (edo diziplina anitzekoetan) eskuratutako ezagutzak eta arazoak konpontzeko duten gaitasuna aplikatzen jakitea.

**CB8.** Ikasleak ezagutzak integratzeko eta iritziak formulatzearen konplexutasunari aurre egiteko gai izatea, informazio osatugabea edo mugatua izanik, beren ezagutzak eta iritziak aplikatzearekin lotutako erantzukizun sozial eta etikoei buruzko hausnarketak barne hartzen dituen.

**CB9.** Ikasleek beren ondorioak – eta horiek sostengatzen dituzten azken ezagutzak eta arrazoiak – publiko espezializatuei eta ez-espezializatuei jakinarazten jakitea, modu argian eta anbiguotasunik gabe.

**CB10.** Ikasleek ikasteko trebetasunak izatea, ikasten jarraitu ahal izateko, neurri handi batean beren kabuz edo autonomiaz zuzendu beharko duten moduan.

### **Zeharkako konpetentziak**

**CT1988.** Giza eskubideen, berdintasunaren, generoaren, kultura-aniztasunaren eta eleaniztasunaren aldeko jarrera proaktiboak sortzea.

**CT1989.** Espezialitatearen eremuko berezko lengoaia zientifikoa erabiltzea.

**CT1990.** Ingelesean irakasten diren ikasgaietan ingelesa ahoz eta idatziz erabiltzea.

**CT1991.** Irakaskuntzari balioa ematea eta garapen profesionala eta bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea.

### **Konpetentzia orokorrak**

- Espezializazioko materietako curriculumaren arabeko edukiak ezagutzea eta, orobat, ikaste-irakaste prozesuei buruzko ezagutza didaktikoak.
- Ikaste-irakaste prozesua planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, heziketa-prozesuak indartuz irakaskuntza bakoitzari dagozkion konpetentziak eskuratzeko. Horretarako, ikasleen hasierako mailari eta prestakuntzari erreparatuko zaie.
- Informazioa bilatzea, lortzea, prozesatzea eta komunikatzea; informazio hori ezagutza bihurtzea eta ikaste-irakaste prozesuetan espezializazioari dagozkion materietan aplikatzea.
- Ikastetxe batean ezarriko den curriculum zehaztea, lankidetzan arituz hura planifikatzen; metodologia didaktikoak garatzea eta ezartzea, taldekoak zein pertsonalizatuak, ikasleen aniztasunera egokituta.
- Ikasketa-guneak diseinatzea eta garatzea; betiere, ikasleen aniztasunari eta berdintasunari erreparatuz: ekitatea, heziketa emozionala eta baloreena, eskubide- eta aukera-berdintasuna gizon eta andreen artean, hiritar-heziketa eta jendartean bizitzea erraztuko duten giza eskubideekiko begirunea, erabakiak hartzea eta etorkizun iraunkorra eraikitzea.
- Estrategiak eskuratzeko ikaslearen ahalegina sustatzeko eta bere kabuz zein beste batzuekin ikasteko gaitasuna indartzeko, eta, orobat, pentsatzeko eta erabakitzekeko trebetasunak garatzeko; horretarako, haren autonomia, konfiantza eta inizatiba sendotuko dira.
- Hezkuntza-sistemaren araudia eta antolaketa instituzionala ezagutzea eta, orobat, ikastetxeetan ezartzen diren kalitate-hobekuntzarako ereduak.

### **Konpetentzia espezifikak**

**CE1511.** Ikastetxeko plangintza-dokumentuak diseinatzen jakitea eta hezkuntza-proiektuaren definizioan, curriculum garatzeko prozesuetan eta ikastetxeko jardura orokorretan parte hartzea, honako irizpide hauek kontuan hartuta: hezkuntzaren kalitatea hobetzea, aniztasunari erantzutea, ikaskuntza- eta bizikidetzara- arazoak prebenitzea eta eskola-arrakasta sustatzea.

**CE1573.** Espezializazioari dagozkion ikasgaien plangintzan, irakaskuntzan eta ebaluazioan esperientzia hartzea.

**CE1574.** Irakaskuntzan ahozko eta idatzizko adierazpena ondo menderatzen dela egiaztatzea.

**CE1575.** Ikaskuntza eta bizikidetzaren erraztuko duen giroa sustatzeko beharrezkoak diren trebetasun eta trebetasun sozialak menderatzea.

**CE1576.** Jarduera-eremuetan hobetzeko proposamenetan parte hartzea, praktikan oinarritutako hausnarketatik abiatuta.

**CE1580.** Ikasleen ezaugarriak, gizarte-testuinguruak eta motibazioak ezagutzea.

**CE1583.** Hainbat gaitasun eta ikasteko erritmo dituzten ikasleei eragiten dieten hezkuntza-egoeren ebazpena identifikatzea eta planifikatzea.

**CE1588.** Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren definizioan eta jarduera orokorretan parte hartzea, kalitatea hobetzeko, aniztasunari erantzuteko eta ikaskuntza- eta bizikidetzara arazoak prebenitzeko irizpideak kontuan hartuta.

**CE1505.** Ikasleen ikasteko gaitasunean eta eskola-errendimenduan eragiten duten faktoreak eta prozesuak identifikatzea eta baloratzea.

**CE1508.** Ikasleen hezkuntza-testuinguruaren arteko harremanak aztertzea eta ikasleen artikulazioa eta osagarritasuna sustatzeko orientazio- eta esku-hartzeko estrategiak diseinatzea.

**CE1509.** Ikastetxearen ezaugarriak, antolaketa eta funtzionamendua aztertzea eta zuzendaritza-, partaidetza- eta koordinazio pedagogiko eta didaktikoko prozesuen eta organoen funtzionaltasuna baloratzea.

CE1510. Ikasgelako elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak ezagutzea.

## 4. Irakasgai-zerrenda (gaitegia)

### 1. Lurraren Zientziak

- Ezagutza zientifikoaren eraikuntza
- Lurraren zientziak: egungo egoera eta arazoak
- Irakaslearen garrantzia Lurraren Zientzien irakaskuntza-prozesuan

### 2. Lurraren Zientziak eta ikasleak

- Ikasleen jarrera Lurraren Zientziekiko
- Hasierako ebaluazioen eta proben garrantzia

### 3. Lurraren Zientzien irakaskuntzaren helburuak eta oinarriko konpetentziak

- Curriculum desberdinen azterketa
- Ikasleen garapen kognitiboarekiko egokitzapena

#### 4. Curriculumaren edukiak

- Curriculumaren edukien azterketa
- Curriculumetik ikasgelara: programazioak
- Unitate didaktikoak

#### 5. Lurraren Zientzien irakaskuntzarako edukiak

- Zuzenak eta zeharkakoak
- Baldintzak eta estrategiak
- Dibertsitatearekiko arreta

#### 6. Lurraren Zientzien irakaskuntzarako estrategiak

- Metodo eta jarduerak
- Jarduera motak, aukeraketa eta integrazioa
- Edukiak lantzeko estrategiak

#### 7. Irakaskuntzarako baliabide eta materialak

- Aukeraketa, garapen eta aplikaziorako testuinguruak

#### 8. Ebaluazioa

- Ebaluazioaren garrantzia irakaskuntza-prozesuan
- Ebaluazio irizpideak eta kalifikazioak
- Ikasgela barneko vs. Ikasgela kanpoko jardueren ebaluazioa

#### 9. Egungo joerak

- Ingurumenarekiko eta jasangarritasunerako hezkuntza
- Zientzia, Teknologia eta Gizartea

## 5. Bibliografia

Ahiartza, JR. 2010. Ornodunak. Anatomia, eboluzioa eta aniztasuna. UEU argitaletxea

Anguita, F. 2002. Biografía de la Tierra. Madrid. Marín.

DECRETO 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en la Comunidad

Autónoma del País Vasco. (BOPV 13/11/2007). Anexo V.

Molles, M. Jr., 2011. Ekologia, kontzeptuak eta aplikazioak. EHUko argitaztea.

Strahler, Arthur. 1992. Geología Física. Omega. Madrid.

#### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

Driver, R. et al. 1989. Ideas científicas de la infancia y la adolescencia. Morata, Madrid.

Garrido, J.M., Perales F.J. & Galdón M. 2008. Ciencia para educadores. Pearson Educación, Madrid.

Harlen W. Reimpresión 2007. Enseñanza y aprendizaje de las ciencias. MEC/Morata. Madrid.

Sanmartí, N. 2010. 10 ideas clave. Evaluar para aprender. Ed. Graó.

**Aldizkariak**

Alambique

Aula de Innovación Educativa

Elhuyar

Enseñanza de las Ciencias

Enseñanza de las Ciencias de la Tierra

**Interneteko helbide interesgarriak**

[www.zientzia.net](http://www.zientzia.net)

[http://www.isftic.mepsyd.es/profesores/primaria/conocimiento\\_del\\_medio/](http://www.isftic.mepsyd.es/profesores/primaria/conocimiento_del_medio/)

<http://recursos.cnice.mec.es/biosfera/>

<http://www2.uah.es/jmc/webens/INDEX.html>

<http://www.berde-berdea.net/>

<http://naturanhezten.eus/>

<https://teknopolis.elhuyar.eus/>